

## Haur hezkuntzako curriculuma

Euskal Herriko Autonomi Elkartearen Haur Hezkuntzako curriculuma **abuztuaren 11ko 236/1992 dekretuaren** <sup>(1),(2),(3)</sup> bidez zehazten da. Honetan aipatzen dira etapan zehar hezkuntza jarduerak erregulatu behar duten helburu, eduki, pedagogia metodo eta ebaluaketa irizpideen multzoa.

### I- Norabide orientagarriak

Lehen-lehenik, honen bidez proposatzen dira aginduzko izaera ez duten haur hezkuntza etapako irakatsi eta ikasteko prozesu eta ebaluaketarako norabideak:

- Etapa honek izaera integratzailea du eta ikasleen heterogenotasuna errespetatu behar da.
- Hezkuntza jarduerak giro goxo, lasai eta elkarrenganako errespetuan oinarrituta gauzatu beharra dago.
- Hizkuntz trataera egokia lortzeko ikasleriaren hizkuntza jatorria zein ikastetxeko hizkuntza ereduak aintzat hartu behar dira.
- Haur eskola eta familiaren arteko harreman iraunkorrak lortu beharra dago.
- Ikaskuntza esanguratsua lortzeko, Haur Eskolak ume bakoitzarentzat esanahirik duten esperientziak eta jarduerak bultzatu beharra dago, umearen aurrezagutzan, interesetan eta parte-hartze aktiboan oinarrituz.
- Manipulazio joko eta esperimenduak izango dira neska-mutilak ingurua ezagutu eta aztertzearen alde Haur Eskolako antolakuntzan eskainiko diren tresnak.
- Umeari espazio, denbora eta baliabideen antolatzeen gaineko bizi esperientziak hornitu behar zaizkio, betiere, elementu malgu, seguru, anitz eskuragarri dutelarik.
- Ebaluaketa funtsezko zatia da hezkuntza prozesuan, emaitzez gain, irakasleriaren lana eta iraka-interbentzioa berrorientatzeko asmotan.

### II- Helburuak

Bestalde dekretu honek zehazten ditu hamar helburu etapa honetarako eta matematikaren arloari dagokionez, ondoko xede hau ezartzen du:

*Matematika errepresentazio formaren posibilitateak maila egokian erabiltzea inguruko objektu eta egoera batzuk eta bere ezaugarri eta berezitasunak aurkitzeko, eta baita berauekin egin daitezkeen ekintzak ere, prozesuari eta emaitzari arreta zuzenduz.*

### III- Matematikarekin zerikusirik duten edukiak

Edukiak bost multzotan banatzen dira, *matematika mintzaira* azkena delarik. Honen barruan ondoko eduki hauek proposatzen dira maila honetarako:

#### Jarrerazko edukiak

1. Objektuak aztertu, zenbatu eta alderatzeko zaletasuna, bai eta objektuen arteko harremanei buruzko ezaguerak praktikara eramatea eskatzen duten jarduerak burutzeko zaletasuna ere.
2. Eguneroko jolasetan eta arazoetan zenbakiak eta eragiketak zein probetxugarri diren ohartzea.
3. Zenbait objekturen neurriak ezagutzeko jakin-mina, eta denboraren neurketarekiko interesa.
4. Egoera, orientabide eta harremanen deskribapena hobetzeko eta zehazteko interesa.

#### Prozedurazko edukiak

a) *Objektu eta bildumen ezaugarri eta harremanak.*

- a.1. Objektu ezberdinen konparaketa, beren ezaugarrien arabera.
- a.2. Objektuak bildumetan biltzea beren antzekotasun eta ezberdintasunen arabera.
- a.3. Bilduma bati dagozkion elementuak eta ez dagozkionak ahoz adieraztea.
- a.4. Objektuak ezaugarri jakin baten maila ezberdinen arabera sailkatzea.

a.5. Objektu eta bildumetan ezaugarri jakin bat zein mailatan aurki daitekeen ondo adierazteko behar diren irizpideak erabiltzea.

*b) Zenbakia.*

- b.1. Objektuen bildumak konparatzea: adina, baino gutxiago, baino gehiago.
- b.2. Ordinalaren erabilera bilduma txiki eta ordenatuetan.
- b.3. Zenbakien seriearen eraikuntza unitatea erantsiz.
- b.4. Zenbakien seriea errealtatearen elementu eta objektuak zenbatzeko erabiltzea.
- b.5. Objektuen bildumak kode konbentzional eta ez-konbentzionalen bitartez grafikoki irudikatzea.
- b.6. Eragiketa errazak (kendu, erantsi, banatu) erabiltzea eskatzen duten arazoak konpontzea.

*c) Neurria:*

- c.1. Konparaketak (baino luzeago, baino motzago, baino handiago, baino txikiago...).
- c.2. Objektuen tamainaren azterketa, aukeratutako erreferentzi unitatearen bitartez.
- c.3. Eguneroko bizitzako zenbait lanen iraupena denborazko unitateak (eguna, astea, ordua) erabiliz neurtzea eta zenbait jarduera denboran kokatzea (eguna, gaua, goiza, arratsaldea, astea, jaieguna...).

*d) Formak, orientazioa eta errepresentazioa espazioan:*

- d.1. Objektuen kokapena eta mugimendua norberaren eta lagunen kokapenarekiko, eta norberaren kokapen eta mugimendua objektuekiko.
- d.2. Norberaren, objekturen baten edo pertsonaren baten kokapena adierazteko espaziotzko oinarritzko nozioak erabiltzea.
- d.3. Irudi eta gorputz geometriko batzuen azterketa sistematikoa beren ezaugarriak ezagutzeko eta haien artean harremanak ezartzeko.

### **Eduki kontzeptualak**

- 1. Objektu eta bildumen propietate eta erlazioak: kolore, forma, tamaina, egitura, etab.; antzekotasun eta ezberdintasun, kidekotasuna eta alderantzizkoa.
- 2. Oinarritzko kuantifikatzaileak: asko/gutxi, bat/hainbat, gehiago/gutxiago, etab.
- 3. Zenbakia:
  - a. Unitatea. Zenbakiaren alderdi kardinal eta ordinalak.
  - b. Zenbakien seriea. Lehen zenbakiak.
- 4. Neurria:
  - a. Neurtzea beharrezko gertatzen den egoerak: magnitudeen konparaketa.
  - b. Neurri-unitate naturalak (esku, oin, beso, urrats...) eta arbitrarioak (soka, taulatxo, ontzi...).
  - c. Denboraren balioespen eta neurketa ezagutzen hastea (denbora asko, denbora gutxi; azkar, mantso; egun, aste...).
- 5. Formak, orientazioa eta errepresentazioa espazioan.
  - a. Forma lauak: zirkulu, karratu, laukizuzen, triangelua.
  - b. Gorputz geometrikoak: esfera, kubo.
  - c. Formak eta gorputzak espazioan: goi/behe; gain/azpi; barne/kanpo; aurrean/atzean; urrun/hurbil; eskuin/ezker; itxita/irekita...

### **Bibliografia osagarria**

- (1) <http://www.isei-ivei.net/cast/nora/noraindex.htm>
- (2) [http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dif10/eu\\_5495/f10\\_e.html](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dif10/eu_5495/f10_e.html)
- (3) [http://www9.euskadi.net/euskara\\_arabidea/Legedia/legeak/euskara/autonomi/euskara/de92b236.pdf](http://www9.euskadi.net/euskara_arabidea/Legedia/legeak/euskara/autonomi/euskara/de92b236.pdf)